

# CONDICIONES DE PARTICIPACIÓN

## “GAZTEARTEA”

### EZKERRALDEAN

2019

Uno de los objetivos del programa Gaztedi Bizkaia de la Diputación Foral de Bizkaia, en el ámbito de la participación de las personas jóvenes, es el fomento de la creación artística como apoyo al sector y elemento dinamizador de la comarca en el ámbito cultural mediante la promoción de jóvenes artistas. Se pretende favorecer su incorporación al ámbito profesional, ofreciéndoles la oportunidad de dar a conocer sus propuestas y creaciones. Con este propósito se ha concebido el programa “Gazte Artea Ezkerraldean” mediante el cual cuatro artistas mostrarán su obra en los diferentes municipios con arreglo a las siguientes condiciones:

- ◆ Podrán participar en GAZTEARTEA EZKERRALDEAN jóvenes con edades comprendidas entre 15 y 29 años con empadronamiento en Barakaldo, Portugalete, Santurtzi o Sestao.
- ◆ Los y las jóvenes artistas interesadas en participar deberán rellenar la ficha de solicitud (anexo 2) con sus datos personales y con una pequeña descripción de su trayectoria dentro del ámbito artístico.
- ◆ Cada artista entregará en soporte papel o digital imágenes de sus obras; así como la ficha técnica (anexo 3) que recogerá las características técnicas de las mismas y una pequeña descripción de lo que el autor o autora pretende transmitir a través de cada obra expuesta.
- ◆ Se podrán presentar por participante un mínimo de 3 obras y un máximo, sin determinar, según espacio expositivo. Cada Área de Juventud seleccionará al artista de su municipio y las obras que formarán parte de la exposición en su municipio, atendiendo a la calidad de las propuestas presentadas.
- ◆ El o la joven artista seleccionada para participar en Gazte Artea Ezkerraldean recibirá 300,00€ en concepto de colaboración por cesión de obra en el programa expositivo.
- ◆ Las obras seleccionadas se colocarán en cada municipio en los espacios y horarios detallados en el anexo 1. La exposición Gazte Artea Ezkerraldean 2019 estará en vigor desde octubre de 2019 hasta enero de 2020.
- ◆ El o la artista será responsable del traslado de las obras al primer espacio expositivo; así como la recogida de las mismas del último lugar de exposición. El traslado se puede delegar en otra persona siempre informando a la organización con antelación. La organización de Gazte Artea Ezkerraldean se hará cargo del traslado entre municipios.
- ◆ Una vez finalizada la exposición colectiva en cada municipio, los y las autoras tendrán un plazo máximo de 15 días para retirar las obras. Pasado este plazo se entiende que renuncian a cualquier derecho sobre ellas.
- ◆ El y la joven participante permitirá a las Áreas de Juventud de cada municipio publicitar sus obras en un catálogo colectivo, además de poder difundir la información de la exposición por los medios que se consideren oportunos, tanto por medios físicos como digitales.
- ◆ Las exposiciones colectivas en cada municipio tendrán una duración aproximada de tres semanas.
- ◆ El plazo de inscripción para poder participar en esta edición de Gazte Artea Ezkerraldean 2019 comenzará el 10 de junio y finalizará el 28 de junio.
- ◆ La participación en GAZTEARTEA EZKERRALDEAN, supone la aceptación total de las condiciones de participación.

## PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

# “GAZTEARTEA”

## EZKERRALDEAN

# 2019

Bizkaiko Foru Aldundiko Gaztedi Bizkaiaren helburuetako bat da parte-hartze arloan gazteen sormen artistikoa sustatzea. Asmoa da gazteak arlo profesionalean txertatzen laguntzea, dituzten proposamenak eta sormen-lanak ezagutarazteko aukera emanez. “Gazte Artea Ezkerraldean” programak helburu hori du eta horri esker, lau artistak erakutsiko dituzte beren artelanak udalerrri desberdinetan honako baldintza hauek kontuan hartuta:

◆GAZTEARTEA EZKERRALDEAN ekimenean 15 eta 29 urte bitarteko gazteek parte hartu ahal izango dute eta Barakaldo, Portugalete, Santurtzi edo Sestaon egon beharko dute errolatuta.

◆Parte hartzeko interesa duten gazte artistek eskabide-orria bete beharko dute (2. eranskina) euren datu pertsonalekin eta arte arloan duten ibilbidearen deskribapen labur batekin.

◆Artista bakoitzak paperean edo euskarri digitalean aurkeztuko ditu bere arte-lanak, baita obren ezaugarriak islatzen dituen fitxa teknikoak ( 3.eranskina) ere eta artistek obra bakoitzaren bidez transmititu nahi dutenaren deskripzio labur bat.

◆Artista bakoitzak 3 artelan aurkeztu ahal izango ditu gutxienez, eta, gehienez, zehaztu gabe, erakusketa guneen arabera. Gazteria Sail bakoitzak aukeratuko du bere herriko artista baita bere herrian erakutsiko diren artelanak ere, aurkeztutako artelanen kalitatea kontuan hartuta.

◆Gazte Artea Ezkerraldean parte hartzeko aukeratutako artistak 300,00 euro jasoko ditu, artelana lagatzeko kolaborazio kontzeptuan erakusketa-programaren barne.

◆Aukeratutako artelanak udal bakoitzean jarriko dira erakusgai, 1. eranskinean zehazten diren toki eta orduetan. 2019ko Gazte Artea Ezkerraldean erakusketa indarrean egongo da 2019ko urritik 2020ko urtarrilera arte.

◆Artistak hartuko du artelanak lehen erakusketa gunera eramateko ardura eta jarritako azken lekutik biltzekoa ere. Lekualdaketarako norbait eskuordetu daiteke, antolakuntzari jakinarazita. Gazte Artea Ezkerraldean programako antolatzaileek hartuko dute herriz herri lekualdaketa egiteko ardura.

◆Udalerrri bakoitzean erakusketa amaitzen denean, egileek 15 eguneko epea izango dute artelanak kentzeko. Epe hori igaro ondoren haien gaineko eskubideari uko egiten diotela ulertuko da.

◆Artistak udalerrietako Gazteria Sailei baimena emango die artelanen irudiak katalogo kolektibo batean inprimatzeko baita egoki ikusten diren baliabideak erabiliz hedatzeko ere, bai baliabide fisikoetan bai digitaletan.

◆Udalerrri bakoitzean egiten diren erakusketak hiru bat asteko iraupena izango dute.

◆2019ko Gazte Artea Ezkerraldean parte hartzeko izena emateko epea 2019ko ekainaren 10ean hasiko da eta ekainaren 28an amaituko da.

◆GAZTEARTEA EZKERRALDEAN ekimenean parte hartzeak parte hartzeko baldintza guztiak onartzea dakar.

## ANEXO 1. ERANSKINA

### ESPACIOS EXPOSITIVOS

#### SANTURTZI

**Lugar:** Mamariga Kulturgunea. Plaza Párroco Elías s/n.

**Espacio expositivo:** Hall situado en la planta 0 y hall situado en la planta -1

**Montaje:** Las exposiciones se montan sobre celosías de madera (180 x 90) ancladas a puntales.

**Horario:** Lunes a sábado, de 10:00 – 14:00 / 16:00 – 21:00.

**Pueden visionarse algunas de las ya realizadas en:**

<http://www.pinterest.com/rebisan/boards/>

#### PORTUGALETE

**Lugar:** Aula Joven. C/ Maestro Zubeldia s/n.

**Espacio expositivo:** Espacio central y espacio acristalado exterior.

**Montaje:** Las exposiciones mediante cables de acero con sus enganches apropiados o sobre caballetes.

**Horario:** Lunes a viernes, de 16:00 a 21:00. Sábados, de 10:00 a 14:00 y de 16:00 a 21:00.

#### SESTAO

**Lugar:** Sala de exposiciones de la Escuela Pública de Música, Gran Vía, 13.

**Espacio expositivo:** Espacio Central y paredes con raíles metálicos.

**Montaje:** Las exposiciones se montan mediante cables de acero o pita suspendidos de los raíles metálicos de las paredes del recinto. También sobre caballetes o urnas de metacrilato.

**Horario:** Lunes a viernes, de 12:00 a 14:00 y de 17:00 a 21:00. Sábados, de 12:00 a 14:00

#### BARAKALDO

**Lugar:** Gazte Bulegoa. C/San Juan 17 Bajo.

**Espacio expositivo:** Oficina de Información Juvenil.

**Montaje:** Las exposiciones se montan en las paredes del recinto, mediante raíles metálicos sujetos a la pared, con cables de pita suspendidos con sus enganches. 1 rail de; 1,90m largo x 3m ancho 2 raíles; 1,40m largo x 2,50m ancho 1 rail; 1,90m largo x 0,80m ancho.

**Horario:** De lunes a viernes de 10:00 a 14:00 y de 17:00 a 20:00 horas. Sábados de 10:00 a 14:00.

### ERAKUSKETA GUNEAK

#### SANTURTZI

**Tokia:** Mamariga Kulturgunea. Plaza Párroco Elías z/g.

**Erakusketa gunea:** Beheko solairuko atondoan eta -1 solairuko atondoan.

**Muntaia:** Erakusketak eskorei lotutako egurrezko saretak erabiliz (180 x 90).

**Ordutegia:** Astelehenetik larunbatara, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 21:00etara.

**Egindako batzuk helbide honetan ikus daitezke:**

<http://www.pinterest.com/rebisan/boards/>

#### PORTUGALETE

**Tokia:** Gazte Gelan. Maestro Zubeldia kalea z/g.

**Erakusketa gunea:** Erdigunea eta kanpoko kristalezko gunea.

**Muntaia:** Erakusketak krokadura egokia duten altzairuzko kable bidez edo asto gainean.

**Ordutegia:** Astelehenetik ostiralera, 16:00etatik 21:00etara. Larunbatetan, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 21:00etara.

#### SESTAO

**Tokia:** Musikaren Eskola Publikoaren erakusketa-aretoa. Gran Vía 13

**Erakusketa gunea:** Erdiko tokia eta metalezko errailak dituzten hormak.

**Muntaia:** Erakusketak aretoko hormen metalezko errailetatik zintzilik dauden altzairuzko edo pitazko kableen bidez muntatzen dira. Halaber, asto edo metakrilatozko kutxen bidez paratzen dira.

**Ordutegia:** Astelehenetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara. Larunbatetan 12:00etatik 14:00etara.

#### BARAKALDO

**Tokia:** Gazte Bulegoa. San Juan kalea 17, behea.

**Erakusketa gunea:** Gazte Informazio Bulegoa.

**Muntaia:** Erakusketak hormetan muntatzen dira metalezko errailen bidez. Errail horiek hormari daude itsatsita, krokaduradun pita-kable zintzilikatuei esker. Errail bat: 1,90 m luze x 3 m zabal; bi errail: 1,40 m luze x 2,50 m zabal; errail bat: 1,90 m luze x 0,80 m zabal.

**Ordutegia:** Astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Larunbatetan, 10:00etatik 14:00etara.



Barakaldo – Portugalete – Santurtzi – Sestao

## ANEXO 2. ERANSKINA



# GAZTEARTEA EZKERRALDEAN

PARTE HARTZEKO ESKABIDE-ORRIA

SOLICITUD DE PARTICIPACIÓN

IZENA <b>NOMBRE:</b>	
ABIZENAK <b>APELLIDOS:</b>	
HELBIDEA <b>DIRECCIÓN:</b>	
HERRIA <b>POBLACIÓN:</b>	
NA <b>DNI:</b>	
TEL(a):	
EMAIL(a):	
JAIOTZA-EGUNA <b>FECHA DE NACIMIENTO:</b>	
CURRICULUM ARTISTIKORIK BADAGO IDATZI LABUR / BIOGRAFIA ARTISTIKOA <b>BREVE CURRÍCULUM ARTÍSTICO SI LO HUBIERE / BIOGRAFÍA ARTÍSTICA:</b>	

√ **Artistak Gazte Artea Ezkerraldean programan parte hartzeko baldintzak onartzen ditu.** El o la artista acepta las condiciones de participación en Gazte Artea Ezkerraldean.

√ Behean sinatzen duenari jakinarazten zaio antolatzaileek erakusketa kolektiboak egiten direnerako parte-hartzaileen artelanak babesten dituen aseguruia - gehienez 300 eurokoa- badutela, eta artistak hala eskatzen badu bere eskura badagoela. **Se informa a la persona abajo firmante, que la organización cuenta con un seguro en la realización de las exposiciones colectivas que cubre cada obra participante por un importe máximo de 300 €, y que está a disposición de el o la artista si así lo requiriese.**

√ Artistak hemen agertzen diren datu pertsonal guztiak eta bere artelana erabiltzeko eskubideak lagatzen dizkie antolatzaileei, jarduera honetan soilik erabiltzeko, baita Internet edota sare sozialetan argitaratzeko ere, antolatzaileek horrela erabakitzen badute, parte hartzeko oinarrietan ezarritakoarekin bat etorrira. **El o la artista cede a la organización los datos personales necesarios aquí citados y los derechos de uso de su obra, con uso exclusivo para este evento, a sí como para publicarlo en internet y/o redes sociales, si la organización lo requiere, según el punto expuesto en las condiciones de participación.**

√ Artistak aitortzen du erakutsiko diren obren jabea dela eta ager litezke irudien erabilpenerako behar den baimena daukala. **El y la artista declara que es titular de las obras expuestas, y que dispone del consentimiento necesario para el uso de posibles imágenes que puedan aparecer en las mismas.**

\_\_\_\_\_n, \_\_\_\_\_(e)ko \_\_\_\_\_aren \_\_\_\_\_(e)an

**Sinadura Firma**



Barakaldo – Portugalete – Santurtzi – Sestao

### ANEXO 3



# GAZTEARTEA EZKERRALDEAN

## LANAREN FITXA TEKNIKOA

## FICHA TÉCNICA DE CADA OBRA

ARTELANAREN TITULUA <b>TÍTULO DE LA OBRA</b>	
ERABILITAKO PINTURA-TEKNIKA <b>TÉCNICA DE PINTURA UTILIZADA</b>	
ARTELANAREN NEURRIAK <b>MEDIDAS DE LA OBRA</b>	
ARTELANAREN EGILEA <b>AUTOR/A DE LA OBRA</b>	
EGILEAREN HERRIA <b>POBLACIÓN DE AUTOR/A</b>	
EGILEAK ZER ESAN NAHI DUEN OBRAREN BITARTEZ <b>QUÉ SE QUIERE TRANSMITIR A TRAVÉS DE LA OBRA</b>	

√ Aurkezten den artelan guztiek fitxa tekniko bana eduki behar dute, behar bezala Beteta. **Cada obra presentada deberá disponer de su ficha técnica debidamente cumplimentada.**

√ Fitxa teknikoa osatzeko artelanaren irudi bat txertatuko da. **La ficha técnica se completará con una imagen de la obra.**